

<b>OÑATIKO UDALA</b>	
Erregistro Data	
2014 IRA 23	
SARRERA	IRTEERA
1785	

Oñatiko BILDU eta EAJ UDAL TALDEAK Osoko Bilkurak bere egin dezan honoko mozioa aurkezten du:

## ALKATEEN AUKERAKETA ZUZENERAKO PROPOSAMENAREN AURREAN

### MOZIOA

Herritarrengandik gertuena dauden instituzioak izanik, Udalen jarduera ireki, zabal eta demokratikoan sakontzea, eguneroko ariketa izan beharko litzateke. Hauteskundeen aurretik, egunean bertan eta ondoren ere, Udalek herritarren borondatearen ispilu izan behar dute. Aldi berean, gainerako interes partidista, ekonomiko eta finantzieroren gainetik, herritarrenganako zerbitzua eta konpromisoa izango dira etengabe, Udal politika ezaugarrituko duten adierazleak.

Baina gure Udalek aurrekinik gabeko erasoak jaso izan dituzte azken urteetan. Europatik proposatu eta Madriletik inpostu dituzten murrizketen gauzapearen bidez, ahalmen politikoak eta ekonomikoak erabat mugatu zaizkie Udalei, lehendik larria zen egoera, oraindik ere larriago bilakatuz. Madriletik inposatu nahi izan zaizkigun neurri horiek guztiak, udalen autonomia suntsitzeaz gain, Udalen eskuetan dauden baliabideak esku pribatuetara bideratzeko ate guztiak irekitzen saiatu dira. Ereku publikoa eta herritarra ahulduz eta era berean eremu pribatuan mugitzen diren entresak indartuz. Azken urteetako udalen jarduera eredia, berez ahula izanik ere, errotik okerrera aldatu nahi izan da Madrilgo Gobernutik.

Behin eta berriz, Hego Euskal Herriko instituzio guztiak, udalen autonomia indartzearen beharra eta udalak herritarrengana gerturatzeko neurriak aldarrikatu arren, Madriletik entzungor egin zaigu eta inposaketarekin erantzun zaigu.

Azken urte hauetan neurri hauek bultzatu eta udalen eskumen politikoak murriztu dituen PP alderdia, alkatearen aukeraketa zuzenerako proposamen batekin datorkigu. Oraindik osotasunean ezagutzen ez baldin ba da ere, alkatea zuzenean zerrendarik bozkatueneko zerrendaburu izendatzeko proposamena jarri da mahaiaren gainean. Udal hauteskundeetarako hilabete gutxi falta diren honetan, nagusiki PP-ren alderdi interesei erantzuten dien proposamen baten aurrean gaude. PP-k ohikoa duen bezala eta beste behin ere, inoren iritzari kasurik egin gabe (eta bereziki Euskal Herriko udal eta toki erakundeetatik egiten diren aldarrikapenei kasurik egin gabe) ari da urratsak ematen. Bere interes politiko alderdikoi eta zentralistak inposatu nahi ditu gure udaletan, herritarren gehiengoaren iritzia alde batera utzita. Alkatetza eta Udal Gobernuak, herritarren gehiengoaren borondatea ordezkatu behar dute. Alkatearen erreferentzia garrantzitsua da, baina ez eredu presidentzialista baten arduradun gisa, herritarren gehiengoaren ordezkari gisa baizik.

Hauteskunde Legearen aldaketa sakon bat behar dela uste dugu. Baina ez alderdi bataren edo bestearen interesak defendatzeko, baizik eta Euskal Herriarrok gure udal eta instituzio egitura nolakoa izan behar duen erabakitzeak aukera izateko. Gure udaletan demokraziari ateak irekitzeko, jarrera presidentzialista eta autoritarioak alde batetara uzteko eta herritarren hitzak udaletan zuzenean indarra izan dezan. PP-k aurkeztu duen proposamenaren kontrako norabidean egin behar dira aldaketak.

Hau guztia kontuan izanik, Oñatiko ko Udalak, honako puntu hauek onartzen ditu:


1.- Udal honek, Madrilgo Gobernutik PP-k alkatea zuzenean zerrendarik bozkatutako zerrendaburua izendatzeko burutu nahi duen Lege Aldaketaren aurkako jarrera adierazten du. Udal eta herritarren interesen gainetik, PP ren alderdi interesei erantzuten dielako. Norabide horretan, udal honek, interes alderdikoei

sustaturiko Hauteskunde Legearen edozein aldebarreko aldaketa errefusatzen du.

2.- Udal honek, Euskal Herriko udal eta toki entitaten borondatea errespetatu eta gure egitura instituzionala inposaketa eta murrizketarik gabe, Euskal Herritarren beharren arabera antolatzeko eskubidea aldarrikatu nahi du.

3.- Udal honek, bere jardueran herritarren partehartzea eta demokrazia zuzenerako tresnak martxan jartzeko konpromisoa hartzen du, udalaren osaketan ezezik udaleko erabaki garrantzitsuenen aurrean ere.

4.- Udal honek, ebazpen honen berri, herritarrei eta Madrilgo Gobernuari emateko erabakia hartzen du.

A handwritten signature in black ink, consisting of several overlapping loops and a long horizontal stroke extending to the right.

Oñatin, 2014ko irailean.